

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

222/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 26koa, hartzailea Gipuzkoako Foru Aldundia denean bide elektronikoz fakturatzeko obligazioa ezartzen duena eta faktura elektronikoa formatua eta hura bidaltzeko baldintzak eta prozedura onartzen dituena.

Otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzen dituenak, betebeharrak generikoa ezartzen du enpresariak edo profesionalak faktura egin eta eman dezaten beren jardura ekonomikoaren garapenean egiten dituzten eragiketengatik. Gainera, foru dekretu horrek zehazten du faktura egin eta emateko betebeharrak erabatekoa dela, salbuespenik gabea, haren hartzailea Herri Administrazioa denean.

Aipatutako foru dekretuak 8. artikuluan ezartzen duenez, fakturak edozein bitartekotan egin daitezke, paperean nahiz formatu elektronikoa, betiere baldin eta faktura egin behar duenak jatorriaren benetakotasuna, edukiaren osotasuna eta haren irakurgarritasuna bermatzen baditu, hura egiten duen egunetik hasi eta gordetzeko obligazioa dagoen bitartean. Bestalde, 9. artikulua ezartzen du faktura elektronikotzat hartzen dela aipatutako erregelamenduan ezarritakoa betetzen duen eta formatu elektronikoa egin eta jasotzen den faktura oro. Orobat dio faktura elektronikoa egin ahal izateko, hartzaileak adostasuna adierazi behar duela.

Esandako foru dekretuak indarrrik gabe utzi du, eta baita ordeztu ere, fakturatzeko obligazioak orain arte arautu dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretua, zeina, beste xedapen batzuekin batera (fakturen tramitazio elektronikoa prozedura onartzen duen ekainaren 14ko 36/2005 Foru Dekretua eta berau garatzen duen azaroaren 23ko 470 Bis/2005 Foru Agindua), oinarria izan baitzen azaroaren 2ko 878/2009 Foru Agindua onartzeko, hain zuzen ere, fakturen hartzailea Gipuzkoako Foru Aldundia denean fakturak telematikoki bidaltzeko baldintzak eta prozedura onartzen dituena.

Foru agindu horretan garatutako alderdiek zerikusia dute hornitzaileek eta hartzekodunek, obra, hornidura, zerbitzu eta laguntza teknikoko kontratuengatik edo bestelakoengatik, Gipuzkoako Foru Aldundiari faktura elektronikoa bidaltzearekin, sistema hori aukeratzen zutenean.

Horrela, foru aginduak, kontratatik Gipuzkoako Foru Aldundiari elektronikoki fakturatzeko aukera emateaz gainera, faktura elektronikoa bidaltzeko prozedura eta baldintza teknikoak ezarri zituen, eta erabili beharreko formatua ere finkatu zuen. Alde horretatik, foru agindu horren bidez derrigorrezko egin zen sinadura elektronikoa aurreratu erabiltzea faktura elektronikoen jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna frogatzeko, haiek bidaltzeko web zerbitzua sortu zen, eta «Facturae» formatuaren 3.0. bertsioa erabiltzea onartu zen.

Fakturatzeko obligazioen erregulazioak izan duen erreferentzia ez du eraginik aipatutako foru aginduaren edukian; hala ere, agindu hori onartu zenetik hiru urte baino gehiago igaro dira, eta sistema eta baliabide teknologikoen bilakaerak berekin ekarri du Gipuzkoako Foru Aldundiaren hornitzaileek formatu

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 222/2013, de 26 de febrero, por la que se regula la obligación de facturación electrónica cuando el destinatario sea la Diputación Foral de Gipuzkoa, y se aprueban el formato de factura electrónica y las condiciones y el procedimiento para su remisión.

El Decreto Foral 8/2013, de 26 de febrero, por el que se aprueba el reglamento que regula las obligaciones de facturación, establece una obligación genérica para que los empresarios o profesionales expidan y entreguen factura por las operaciones que realicen en el desarrollo de su actividad económica. Además, especifica que la obligación de expedir y entregar factura es absoluta, sin excepciones, en los supuestos en que el destinatario de la misma sea una Administración Pública.

El artículo 8 del citado Decreto Foral prevé que las facturas se puedan expedir por cualquier medio, en papel o formato electrónico, que permita garantizar al obligado a su expedición la autenticidad de su origen, la integridad de su contenido y su legibilidad, desde su fecha de expedición y durante todo el periodo de conservación. El artículo 9, por su parte, entiende por factura electrónica aquella factura que se ajuste a lo establecido en el citado Reglamento y que haya sido expedida y recibida en formato electrónico, condicionando esta vía de remisión al consentimiento por parte del destinatario.

El citado Decreto Foral ha derogado y sustituido al Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación, que sirvió de base, junto con el Decreto Foral 36/2005, de 14 de junio, por el que se aprueba el procedimiento de tramitación electrónica de facturas, y la Orden Foral 470 Bis/2005, de 23 de noviembre que la desarrolla, para aprobar la Orden Foral 878/2009, de 2 de noviembre, por el que se aprueban las condiciones y el procedimiento de remisión telemática de facturas cuando el destinatario sea la Diputación Foral de Gipuzkoa, y el formato de factura electrónica.

La Orden Foral desarrollaba distintos aspectos relativos a la remisión a la Diputación Foral de Gipuzkoa de facturas electrónicas por parte de aquellos de sus proveedores y acreedores con motivo de contratos de obras, suministros, servicios, asistencias técnicas y por contratos de cualquier naturaleza, que optaran por este medio de remisión de factura.

Así pues, además de habilitar la posibilidad de que el contratista facturara voluntariamente de forma electrónica a la Diputación Foral de Gipuzkoa, establecía también las condiciones técnicas y el procedimiento para el envío de las facturas electrónicas, así como el formato de factura electrónica a utilizar. En este sentido, se establecía la exigencia de firma electrónica avanzada para acreditar la autenticidad del origen e integridad del contenido de las facturas electrónicas, se habilitaba un servicio web para su envío y se aprobaba la utilización del formato «Facturae», en su versión 3.0.

Aunque la reforma operada en la regulación de las obligaciones de facturación no incide en el contenido de la referida Orden Foral, transcurridos más de tres años desde la aprobación de aquella Orden Foral, la evolución de los sistemas y medios tecnológicos permite ampliar las opciones de los formatos y de

gehiago erabili ahal izatea eta fakturak bidaltzeko bitartekoak ugaltzea. Jakina, horrek erraztu egin behar du formula hau erabili eta zabaltzea.

Foru agindu honek zehazten du zer formatu izan behar duen Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzen zaion faktura elektronikoa, zer baldintza tekniko bete behar dituen, eta zer prozedura erabili behar diren faktura elektronikoa bidaltzeko prozesu orotan.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko fakturazio elektronikoa erabili beharreko faktura elektronikoa «Facturae» formatua izango du, orain arte bezala. Faktura elektronikoa «Facturae» formatuaren bertsiorik eguneratuenak erabili ahal izan daitezten, agindu honek Foru Aldundiaren egoitza elektronikora igortzen gaitu «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioak eta haien ezaugarriak ezagutzeko. Horren ondorioz, foru agindu honen onarpen datan, «Facturae» formatuaren 3.0 bertsioa ez ezik, 3.1 eta 3.2 bertsioak ere erabili ahal izango dira.

Faktura elektronikoa bidaltzeko baldintzei dagokienez, sinadura elektronikoa aurreratuaren orde, foru agindu honek sinadura elektronikoa balioztatua erabiltzea exijitzen du, abuztuaren 2ko 865/2007 Foru Aginduak, fakturazio telematikoa eta fakturak modu elektronikoz gordetzeari buruzko zenbait xedapen garatzekoak, jasotakoaren arabera. Sinadura elektronikoa balioztatua sinadura elektronikoa aurreratu da, ziurtagiri balioztatua batean oinarritua eta sistema seguru baten bidez sortua.

Igorpen prozedurei dagokienez, aukera sortzen da faktura elektronikoa posta elektronikoz ere bidaltzeko, gfa_fakturalektronikoak@gipuzkoa.net helbidera zuzenduta.

Horiek horrela, honako hau

1. artikulua. Xedea eta eremu subjektiboa.

Foru agindu honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiari faktura elektronikoa egin eta bidali behar dizkieten guztientzat estandar eta baldintza tekniko uniformeak ezartzea, eta bidalketa egiteko prozedurak eta horretarako beharrezkoak diren zehaztapenak finkatzea.

2. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiari faktura elektronikoa bidaltzeko baldintza teknikoak.

Kontratazio administratiboaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako faktura elektronikoen jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna sinadura elektronikoa balioztatua erabiliz bermatu behar dira, sinadura elektronikoa arautzen duen abenduaren 19ko 59/2003 Legeak 3.3 artikuluan jasotakoari jarraiki.

Faktura elektronikoa horiek «Facturae» formatua izan behar dute. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, <https://www.gfaegoitza.net> helbidean, kontsultatu ahal izango da «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa.

Sinadura elektronikoa formatuak zehaztapen hau bete behar du: XML-Advanced Electronic Signatures (XAeS), ETSI TS 101 903. XAeS formatuaren 1.2.2 eta 1.3.2. bertsioak erabili ahal izango dira. Sinadurak XAeS-EPES eta XAeS-XL luzapenak izatea onartuko da.

Aurreko paragrafoetan jasotako formatu eta zehaztapenak bete gabe Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzen zaizkion faktura elektronikoa errefusatuta geratuko dira.

los medios de envío de facturas que pueden emplear los proveedores de la Diputación Foral de Gipuzkoa, lo cual ha de facilitar el empleo y la difusión de esta fórmula.

La presente Orden Foral especifica el formato de factura electrónica a utilizar en la facturación electrónica a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y las condiciones técnicas requeridas y los procedimientos de envío previstos para toda remisión de factura electrónica.

El formato de factura electrónica a utilizar en la facturación electrónica a la Diputación Foral de Gipuzkoa, continúa siendo el formato «Facturae». Al objeto de agilizar la posibilidad de utilizar las versiones más actualizadas del formato de factura electrónica «Facturae», la Orden Foral remite a la sede electrónica de la Diputación Foral a los efectos de conocer las versiones admisibles en cada momento del formato «Facturae» y sus descripciones. Ello supone que, a la fecha de aprobación de esta Orden Foral, se pueda utilizar, además de la versión 3.0, las versiones 3.1 y 3.2 del formato «Facturae».

Por lo que a las condiciones de remisión se refiere, la presente Orden Foral, con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 865/2007, de 2 de agosto, por la que se desarrollan determinadas disposiciones sobre facturación telemática y conservación electrónica de facturas, exige la utilización de firma electrónica reconocida, que es la firma electrónica avanzada basada en un certificado reconocido y generada mediante un dispositivo seguro de creación de firma, en vez de la firma electrónica avanzada.

Por lo que respecta a los procedimientos de remisión, se habilita una nueva posibilidad de enviar las facturas electrónicas a través de correo electrónico, dirigiéndolas a la dirección gfa_fakturalektronikoak@gipuzkoa.net.

En su virtud,

Artículo 1. Objeto y ámbito subjetivo.

Constituye el objeto de la presente Orden Foral el establecer para todos los remitentes de facturas electrónicas destinadas a la Diputación Foral de Gipuzkoa unos estándares y condiciones técnicas uniformes en la emisión y envío de las facturas en soporte electrónico y el implantar los procedimientos para realizar esta remisión y las especificaciones requeridas para ello.

Artículo 2. Condiciones técnicas de la remisión de las facturas electrónicas destinadas a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La autenticidad del origen e integridad del contenido de las facturas electrónicas que tengan por destinatario a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el ámbito de la contratación administrativa, se garantizará mediante la utilización de firma electrónica reconocida, en los términos previstos en el artículo 3.3 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de Firma Electrónica.

Estas facturas electrónicas deberán hallarse en el formato «Facturae». La información relativa a las versiones del formato «Facturae» admisibles en cada momento se encontrará disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ubicada en la dirección <https://www.gfaegoitza.net>

El formato de firma electrónica deberá ajustarse a la especificación XML-Advanced Electronic Signatures (XAeS), ETSI TS 101 903. Se soportarán las versiones de XAeS 1.2.2 y 1.3.2. Se admitirán las siguientes extensiones a la firma: XAeS-EPES y XAeS-XL.

Serán rechazadas aquellas facturas electrónicas que se remitan a la Diputación Foral de Gipuzkoa sin ajustarse a los formatos y especificaciones previstos en los párrafos anteriores.

3. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiari faktura elektronikoa bidaltzeko prozedura.

Bat. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuari bidali behar zaizkio faktura elektronikoa.

Formatu elektronikoan egindako fakturak transmititzeko, ezinbestekoa da bidaltzaileek zehaztaper jakin batzuk betetzea, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuta egongo direnak.

Bi. Bi modutan bidali ahal izango dira fakturak:

a) Fakturazio elektronikoa web zerbitzuari deituz, protokolo seguru baten bitartez. Ondorio hauetarako, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuko da deitu beharreko web zerbitzuaren URL helbidea.

b) Posta elektronikoa erabiliz. Ondorio hauetarako, faktura elektronikoa postari erantsiko zaizkio, eta ondoko helbide elektronikora bidaliko dira: Gfa_fakturaelektronikoak@gipuzkoa.net.

Hiru. Faktura egoitza elektronikoan jaso ondoren, mezu baten bitartez bidaltzaileari adieraziko zaio faktura onartu den edo errefusatu den.

Lau. Artikulu honetan jasotako prozedura eta zehaztapenak bete gabe Foru Aldundira bidaltzen diren faktura elektronikoa bidali gabekotzat hartuko dira.

Bost. Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan fakturazio elektronikorako software bat izango da eskura, interesdunak faktura elektronikoa egin eta bidal ditzaten.

4. artikulua. Faktura elektronikoa hornitzaileei itzultzea.

Fakturan jasotako gastua egin zuen departamentu kudeatzailearen iritziz haren ordainketa bidezkoa ez denean, Kontabilitate Zerbitzuari proposatuko dio formatu elektronikoan jasotako faktura itzultzea, betiere proposamen horren arrazoiak zein diren azalduta.

Kontabilitate Zerbitzuak hornitzaileari itzuliko dio formatu elektronikoan bidalitako faktura, eta adieraziko dio zer arrazoi argudiatu dituen departamentuak hura itzultzeko. Itzulketa bide telematikoz egingo da, faktura elektronikoa Foru Aldundira bidaltzeko unean bidaltzaileak adierazitako helbide elektronikoa berbera erabilita.

5. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiak faktura elektronikoa egiteko baldintza teknikoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskarri elektronikoan egindako fakturei foru agindu honek 3. artikuluan ezarritako baldintza orokor berberak aplikatu zaizkie.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indarrrik gabe geratzen dira bertan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko nahiz beheagoko xedapen guztiak eta, bereziki, azaroaren 2ko 878/2009 Foru Agindua, fakturen hartzailea Gipuzkoako Foru Aldundia denean fakturak telematikoki bidaltzeko baldintzak eta prozedura nahiz faktura elektronikoa formatua onartzen dituenak.

Amaierako lehen xedapena. Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiari ahalmenak ematea.

Foru agindu honek 1, 2. eta 3. artikuluetan jasotakoa jasota ere, Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiari ahal-

Artículo 3. Procedimientos de remisión de las facturas electrónicas destinadas a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Uno. Las facturas electrónicas se remitirán al Servicio de Contabilidad del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral a través de Internet.

Para transmitir las facturas elaboradas en formato electrónico, es imprescindible que los remitentes se ajusten a determinadas especificaciones, las cuales estarán publicadas en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Dos. El envío de las facturas podrá realizarse por estos medios:

a) Invocando, mediante protocolo seguro, el servicio web de facturación electrónica. A estos efectos, en la sede electrónica de la Diputación Foral se publicará la dirección URL del servicio web que se debe invocar.

b) A través del correo electrónico. A estos efectos, la factura o facturas electrónicas se incorporarán como documentos adjuntos al correo y se remitirán a la siguiente dirección de correo electrónico: gfa_fakturaelektronikoak@gipuzkoa.net.

Tres. Una vez recibida la factura, el remitente recibirá una respuesta informando de la aceptación de la factura o, en su caso, de su rechazo.

Cuatro. Se considerarán no remitidas aquellas facturas electrónicas que se remitan a la Diputación Foral sin ajustarse al procedimiento y especificaciones previstos en este artículo.

Cinco. En la sede electrónica de la Diputación Foral se podrá acceder a un software de facturación electrónica, que permitirá a los interesados confeccionar y enviar facturas electrónicas.

Artículo 4. Devolución de las facturas electrónicas a los proveedores.

Cuando a juicio del departamento gestor que realizó el gasto que se recoge en la factura, su abono no resultase procedente, propondrá al Servicio de Contabilidad la devolución de la factura recibida en formato electrónico, dando cuenta de los motivos de esta propuesta.

El Servicio de Contabilidad devolverá al proveedor la factura remitida en formato electrónico, comunicando los motivos alegados por el departamento para su devolución. Esta devolución se realizará telemáticamente, mediante su remisión a la dirección de correo electrónico que el remitente de la factura electrónica haya hecho constar en el momento de la remisión de la factura a la Diputación Foral.

Artículo 5. Condiciones técnicas de la emisión de facturas electrónicas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

A las facturas que emita en soporte electrónico la Diputación Foral de Gipuzkoa les serán de aplicación las mismas condiciones que con carácter general se establecen en el artículo 3 de la presente Orden Foral.

Disposición derogatoria única.

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la misma y, en particular la Orden Foral 878/2009, de 2 de noviembre, por la que se aprueban las condiciones y el procedimiento de remisión telemática de facturas cuando el destinatario sea la Diputación Foral de Gipuzkoa, y el formato de factura electrónica.

Disposición Final primera. Atribución de facultades al Director o la Directora General de Finanzas y Presupuestos.

No obstante lo previsto en los artículos 1, 2 y 3 de la presente Orden Foral, se atribuye al Director o la Directora

mena ematen zaio hornitzaile eta zerbitzu-emaille jakin batzuk faktura elektronikoak foru agindu honetan ezarritako eran bidaltzeko aukeratik salbuesteko, hartzailea Gipuzkoako Foru Aldundia denean. Horretarako, Aldundiak zilegi diren ordezeko formatu eta prozedurak eratuko ditu.

Amaierako bigarren xedapena. Indarrean jartzea.

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean foru agindu hau.

Donostia, 2013ko otsailaren 27a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(2221)

(2156)

General de Finanzas y Presupuestos la facultad de excluir a determinados proveedores y prestadores de servicios de la posibilidad de remitir sus facturas electrónicas, cuyo destinatario sea la Diputación Foral de Gipuzkoa, con arreglo a lo previsto en esta Orden Foral, habilitando para ello los formatos y procedimientos alternativos que corresponda.

Disposición Final segunda. Entrada en vigor.

Esta Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa».

San Sebastián, a 27 de febrero de 2013.—La Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(2221)

(2156)